

BANAKETA KANALAK

Banaketa kanalek, balorezko proposamena bezeroengana iritsi dadin, gure enpresa nola komunikatzen den eta merkatu xedera nola iristen den deskribatzen dute.

Komunikazio kanalari dagokionean, gure zerbitzua ezagutarazteko hainbat bide erabiliko ditugu: herri ezberdinetako asistentak sozialek gure zerbitzuak ezagutaraziko dituzte, webgune bat sortuko dugu, marketing online bidezko promozioa egingo dugu, ahoz-ahozko marketina lortuko dugu...

Banaketa kanalari dagokionean, gure zerbitzua bezeroengana iristeko webgune bat edukiko dugu, gure bezeroekin kontaktuan jartzeko eta gure zerbitzua kontratatu ahal izateko. Beraz, gure banaketa kanala, zuzena eta propioa izango da.